

106. zk.
2001eko urria



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

**ETORKIZUNA
euskaraz dator!!**

**ARABAKO EUSKARAREN HISTORIA ZABAL DADIN!
GURE LURRALDEKO HISTORIA,**

**ORAIN ARTE IBILTAKOAK: GASTEIZ, LAUDIO, AGURAIN, MAEZTU, ARTZINIEGA,
ARGANTZUN, TREBINO, ARAMAIO, IZARRA, GOPEGI, ZUHATZU KOARTANGO...**

- GASTEIZ: UNIBERTSITATE-PABILIOIAN. AZAROAK 6-26

- LEGUTIO: URRIAK 22-AZAROAK 2

**- OION: URRIAK 3-10. IKASTOLA BERRIAN
- LAPUEBLA LABARKA: URRIAK 12-19. UDAL ARETOAN**

• ARABAKO ERRIOKA:

**ERAKUSKETTA IBILTARIAK
AURREERA DARRAI:**

ARABAKO EUSKAL HOTSAK ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA

106. zk. 2001eko urria

4. ORR.:

HILEKO GAIA. GAZTETXEA

5.-6. ORR.:

ZIZKA-MIZKAK

7. ORR.: GEUgune:

KanGeuroak eta Geu Azoka-ren itzulera! / GEUrekin Mendira

9. ORR.:

XUXEN ZOZKETA

11-16. ORR.:

IKASTOLAK, ESKOLAK, EREDUAK

17. ORR.:

KOZKORTUZ... IRAKURTZEN
HASTEKO...

18-19. ORR.:

HAUR KANTARI TXAPELKETA-01

21. ORR.:

TXINTXO. EREIN

23-25. ORR.:

Arantza Lopez Marugan eta
"CUERDAS REBELDES"

27. ORR.:

EMAIZE: BIHARAMUNNEKO PILULA

29. ORR.:

ZEUK AUKERATU!

30. ORR.:

Iñigo Sarasolaren komikia

31. ORR.:

EUSKALGUNE, zure topagune!



4. ORR.



17. ORR.



18. - 19. ORR.



23. - 25. ORR.





GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a •
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. eta DAV. Testuen orrazketa: E.B. Maketa: Dalvez. Komikia eta logoa: Iñigo Sarasola. Araba Bixotzian: Agurtzane Villate. Kolaboratzaileak: Iñaki Zorrakin. Publizitatea eta Banaketa: Edurne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 ISSN: 1133-0988 •

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz; egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitaen erantzukizunik.



ORRI HAU GAZTETXEAREN ETA ADIERAZPEN
ASKATASUNAREN ALDEKO MEZUA ZABAL ZEDIN GORDEA
ZEGOEN, BAINA TESTUA EZ DA GARAIZ HELDU...
HEMENDIK, BERAZ, ELKARTASUNEZKO IRUDIAK.

Hileko gaia



GUZTION ETXEA



hileko ekitaldiak

ARABAKO IRAILAK EUSKARAZ BLAI!

ZIGOITIA EUSKARAZ-01 eta EUSKARA AÑANAN MINGAINEAN-01.

ARABARROK BEHIN ETA BERRIRO BAI EUSKARARI!



Gara



gastelZkinak

araba bixotzian



Agurtzane Villate

ikusi-makusi

Adriano VI.aren kalea. Irailak 18




Edorta Sanz

Ura dario!!

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin



Karnaba (*Carduelis carduelis*).

Nik pertsonalki, gure landetako astalarren (*Dipsacus fullonum*) hasiez elikatzen ikusi nahiago kaiolan baino.

• GEU AZOKA

Hemendik aurrera atal hau finkoa izango da gure orrietan: zerbait saldu, erosi, alokairuan jarri edota alokatu nahi duzula...? Eskola partikularren berri eman nahi duzula? Umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko lagun baten bila zabiltzala...? **HEMEN DUZUE EUSKARAZ EGITEKO AUKERA!!!**

• SALMENTAK-ALOKAIRUAK

• UMEAK - ETXEKO LANAK - ESKOLA PARTIKULARRAK

Telefonoz edo posta elektronikoaren bidez

• KANGEUROAK

Umeak zaintzeko prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsalde, gauez, asteburuak...). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

- EGUN OSOZ
- GOIZEZ
- ARRATSALDEZ
- GAUEZ
- ASTEBURUAK

GEUREKIN MENDIRA. URRIKO IRTEERA

ARBARAIN (HIRUMUGARRIETA)

URRIAREN 28an / *Olaztitik igota

Goizeko irteera da. IRTEERA:
Goizeko 8:30etan Txapela tabernatik (Prado kalean)
ITZULERA: 15:00etan

TLFNOA.: 945 14 62 96 (Edurne).

KULTUR ERROTA

GEU elkartearen eskutik

• **MARKOS UNTZETA** •

abeslari-musikari bakarlaria

- Urriaren 30ean
- Parral tabernan
- Arratsaldeko 8etan

2001

Páginas Blancas

Guía alfabética de particulares y empresas
Partikularren eta enpresen alfabetozko aurkitegia

“Partikularren eta enpresen **alfabetozco** aurkitegia”

**Halakoak
NOIZ
arte?**

GEU elkartearen posta elektronikoa honakoa da: geuelkarte@grn.es

Gogoratu aldizkariarena: geugaste@grn.es

GEU aldizkarian iragarritz, euskara bultzatu.
Mila esker!! Iragar zaitez: 945 22 21 53

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurria, hurbila eta saiatua.

Horixe duzu gure konpromisoa.

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

XUXEN ZOZKETA ADI HARPIDEDUN!

**XUXEN, EUSKARAZKO
ZUZENTZAILE ORTOGRAFIKOA (CDa)
ESKURATU NAHIKO AL ZENUKE?**

ORAIN DUZU AUKERA:

ZUK GURI HARPIDEDUN BAT


(lagun bat, senide bat, auzoko bat...) OPARITU ETA

GUK ZURI XUXEN ZUZENTZAILE ORTOGRAFIKOA OPARITUKO DIZUGU!


ERNE IBILI! **DEITU AZKAR 945 22 21 53**

telefono zenbakira, EMAGUZU HARPIDEDUN BERRI HORREN IZENA,
ETA LASTER IZANGO DUZU XUXEN ZURE ETXEAN!

EZ GALDU AUKERA ETA DEITU AGORTU BAINO LEHEN!!!



*Zer deritzozu existitu den
abentura zoragarrienean
parte hartzeari?*



erein
argitaletxea

GURE
KLASIKOAK

NON BAIT

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

ZURE
EUSKAL
DENDAK

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



JANTZI
ETA
OPARIAK

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



OKA!

arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artearen)
Tfnoa: 945 25 03 52

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74



BEIRATE
ESTUDIOA

MIKEL
DELIKA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ


ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Irakaskuntza mapa eta Euskara Irakaskuntzan

Leire Lopez de Aberasturi

BI SARE, IRAKASKUNTZA BAT

Haur eta gazteak eskolara itzultzeak markatzen du udaren amaiera eta negu luzearen hasiera, eta dagoeneko ehundaka ikaslek hasi dute ikasturtea Gasteizko ia 50 ikastetxe publiko eta 36 eskola pribatuetan. Liburuen prezioa, hizkuntz ereduak, curriculumaren ildo politikoa...: ikasturtea hainbat eztabaidaz bustia jaio da. Gurasoek, gainera, sare publiko eta pribatuaren artean aukeratu behar dute. Hezkuntz sistemaren konplexutasuna kontuan izanda, GEUK hainbat puntu hobeto ulertzeko txostena prestatu du. Araban eskola publikoa nagusi da, ikastola zein eskolen artean. Bi sare-en arteko ezberdintasunak zentroen kudeaketa eta titularitatea, irakasleen kontratazioa eta gurasoen partehartze arloetan datoz gehienbat. Baina bi hezkuntz sareen desberdintasunen gainetik legea bera da ikastetxe guztientzat curriculum, ratio, ordutegi eta abarri dagokionez.

IKASTOLAK ETA ESKOLAK

Ikastola eta gainontzeko eskolen arteko desberdintasun nagusia hizkuntz eredu dela azpimarratzen dute irakaskuntzako langileek. Hau da, ikastola pribatu eta eskola pribatu baten arteko ezberdintasuna ikastolak D eredu duela da. Arlo publikoan ere berdin: ikastola publiko bat D eredu-ko eskola publikoa da. Eskola eta ikastola pribatuetan titularitatea "jabee-

na" da: gurasoen kooperatiba bada, Olabide Ikastolaren kasuan bezala, aita-amena; ikastetxe pribatu erligiosoen kasuan, Eliza berarena edo orden zehatzen batena. Eskola publikoaren titularitatea, berriz, publikoa da, eta gurasoek, irakasleek eta ikasleek osatu Eskola Kontseiluak dira eskolaren funtzionamenduaren nondik norakoak zehaztuko dituztenak.

Sare publikoan gurasoek daukate Eskola Kontseiluetan partehartzearen gehiengoa, eta eskola pribatuek ere aita-amek parte hartzeko mekanismoak izaten dituzte.

DIRUAREN JATORRIA ETA KUDEAKETA

Zentroaren jabetzak diruaren jatorria definitzen du, baita bere kudeaketa ere. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Departamentuak diru zehatz bat ematen dio zentro publiko bakoitzari, horrek "autonomia finantzieroa" deritzenaren izenean egoki ikusten duen moduan kudeatzeko, beti ere Lakuari gastuen berri zehatza eman behar zaiola ahaztu gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoan sare pribatua mantendu arren, egun ia eskola guztiak hitzartuak dira; hau da, neurri batean edo bestean Hezkuntza Sailaren dirua jasotzen dute, batez ere irakasleen soldatak ordaintzeko. Eta ordaintzen duenak langileak kontratatzen ditu, noski. Horrek zer esan nahi du? Sare publikoan administrazioak kontratatzen dituela irakasleak, ez zentro bakoitzak.



GASTEIZ: Sareak, hezkuntza-ereduak, euskara nondik nora, euskal eskola publikoa, ikastolak... ..*Etorkizuna euskaraz dator!*

SARE PUBLIKOA: EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA-IKASTOLAK D/B-D EREDUAK

• ABENDAÑO IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1985
Ikasle kopurua: 643
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: D
Ikastolak antolatzen dituen ekitaldi guztiak euskara hutsez egiten dira, bai eskolak baita klase orduetatik kanpokoak ere.



• ABETXUKO IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1986
Ikasle kopurua: 80
Ikasleen adina: 2-12
Hizkuntz ereduak: D
Duela bizpahiru urtetik hona Abetxuko ikastolako ekitaldi guztiak euskara hutsez dira.

• ARANTZABELA IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1981
Ikasle kopurua: 426
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: D
HNPre barruan lan egiten du.
Euskararen Astea ospatu ohi du ikasturtero.

• BAMBI IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1985
Ikasle kopurua: 160
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: D
Urtean zehar ekintza ugari antolatzen ditu Alde zaharreko ikastolak euskaraz eta euskararen alde: Euskararen Astea, jaien ospakizunak (Olentzero, Ihauteriak),...

• ADURTZA IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1985ean sortu, eta 1994an Severo Otxoa eskolarekin bat egin zuen.
Ikasle kopurua: 200 baino gehiago.
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: D
Hizkuntz Normalkuntzarako Proiektuaren (HNP) barruan lan egiten du Adurtzak. HNP Eusko Jaurlaritzak euskal eskola publikoaren zentroetan euskara bultzatzeko martxan jarritako proiektua da.

• LUIS ELEJALDE •

Sorrera urtea: 1978
Ikasle kopurua: 200
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: D
HNP proiektuan egoteaz gain, Gasteizen antolatzen diren euskararen aldeko ekitaldietan ere parte hartzen dute.

• ODON DE APRAIZ IKASTOLA •

Sorrera urtea: Ikastola moduan 1985ean sortu zen
Ikasle kopurua: 405
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: D
Euskararen erabilera bultzatzeko proiektua du.
Urtean zehar Euskararen Astea antolatzen du.



• BARRUTIA IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1980
Ikasle kopurua: 400
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: D
HNPren partaidea da.

"Ya sabe castellano. Si matriculas a tu hij@ será bilingüe y Vitoria-Gasteiz también"
"El euskara, un derecho y una ventaja..." (Matrikulazio kanpainaren mezuak)

Euskal Hezkuntza Sistemaren hizkuntza ereduen inguruan

Hainbat ahots entzuten ari gara euskal hezkuntza sistemaren hizkuntza ereduen gaur egungo egoera birplanteatu behar dela esanez. Gure ikuspuntutik birplanteatu beharreko helburu berria hau da: derrigorrezko hezkuntza bukatuta koan elebiduntasuna errealitatea izatea. Eztabaida hau lasaitasunez aurrera ateratzeko gai bagara,

bakoitzaren eskubideak errespetatzeko garaian zuhurrak bagara, eta, oso gai garrantzitsua, Euskal Eskola Publikoari egungo aniztasun kultural eta etnikoari erantzun emateko errekurtsoak ematen bazaizkio, hemendik urte gutxira emaitzak nabariak izango dira eta elebiduntasuna egia bihurtuko da. Bidea dugu oraindik ibiltzeko eus-

kara Araba mailan komunikazio bide erreala izan dadin. Baina atzerantz begiratzuz gero jadanik ibilitako bidea garrantzitsua izan dela onartu behar dugu. Laster hainbat eta hainbat etxetan ama hizkuntza gisa euskara eta erdara elkarrekin izango ditugu, eta hori egoera guztiz aldatuko duen jauzi kualitatiboa izango da.

Juan Carlos Alonso Quilchano
Denon Eskolako Presidente

• TOKI EDER IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1981

Ikasle kopurua: 289

Ikasleen adina: 3-12

Hizkuntz ereduak: D

HNPren partaide da eta Denon Eskolaren proiektuetan parte hartzen du.

Ikasturtean zehar hiru euskara kanpaina burutzen ditu Toki Eder Ikastolak. Egun lehenengoan murgilduta daude, haurrek udan zehar ahaztutako euskara berreskuratzeko helburuarekin. Prudentzio Deuna, Ihauteriak, Gabonak,... ospatzeko jaiak antolatu ohi ditu, guztiak euskara hutsez.



• UMANDI IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1986

Ikasle kopurua: 434

Ikasleen adina: 3-12

Hizkuntz ereduak: D

HNPren barruan ez egon arren, horren inguruan Gasteizen antolatzen diren ekitaldietan parte hartzen dute.



• LOPE DE GEREÑU •

Sorrera urtea: 1976

Ikasle kopurua: 400

Ikasleen adina: 3-12

Hizkuntz ereduak: B-D

HNP

Eskola ordutegitik kanpoko jarduerak euskaraz egiten ditu eskolak, ikasleentzako barnetegiak adibidez.

• ANGEL GANIBET •

Sorrera urtea: 1979

Ikasle kopurua: 551

Ikasleen adina: 3-12

Hizkuntz ereduak: B-D

HNPren barruan dago eta eskola orduetatik kanpoko ekitaldiak euskaraz egiten dira.

• ARANBIZKARRA IKASTOLA •

Sorrera urtea: Zentroa 1981ean sortu zen, baina iaz bihurtu zen ikastola.

Ikasle kopurua: 70

Ikasleen adina: 3-12

Hizkuntz ereduak: B-D

HNPren sartzeko asmoa du Ikastolak, horren aldeko eskaerak jaso dituelako.

SARE PRIBATUKO IKASTOLAK

• ARMENTIA IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1991

Ikasle kopurua: 400

Ikasleen adina: 2-16

Hizkuntz ereduak: D

HNPren partaide.



• IKAS-BIDEA IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1971an

Ikasle kopurua: 1.234

Ikasleen adina: 3-18

Hizkuntz ereduak: D

HNP

Maiatza inguruan Euskal Astea Ospatzen antolatu ohi da, eta kurtso amaieran gurasoek Ikastola Eguna antolatzen dute. Ihauterietan ere Jai Euskalduna egiten dute.

• KOLDO MITXELENA INSTITUTUA •

Sorrera urtea: 1987

Ikasle kopurua: 500

Ikasleen adina: 12-20. DBH,

Batxilergoa eta Lanbide

Heziketako bi ziklo.

Hizkuntz ereduak: D

Euskara da Koldo

Mitxelenaren ezaugarriarik

nagusiena eta urtean zehar hainbat ekitaldi burutzen ditu:

Bertso saioak, idazleen hitzaldiak, kultur astea,...



• EKIALDEA •

Sorrera urtea: 1996

Ikasle kopurua: 805

Ikasleen adina: 12-18.

Hizkuntz ereduak: B-D

Euskara, gaztelera eta ingelesaren irakaskuntzaren didaktika bateratuaren programa dauka.

• MENDEBALDEA •

Sorrera urtea: 1996

Ikasle kopurua: 550

Ikasleen adina: 12-16. DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

Hizkuntz ereduak: B-D

HNPren partaide. Iaz bezala, aurtan ere euskal astea antolatuko du.

• OLABIDE IKASTOLA •

Sorrera urtea: 1963

Ikasle kopurua: 1.500

Ikasleen adina: 3-18

Hizkuntz ereduak: D

Bi Euskara Batzorde ditu Gasteizko ikastolarik zaharrenak, ikasleena bata eta irakasleena bestea. Biek batera Euskara Jai Eguna antolatzen dute. Horretaz gain, "Ttakun Ttakun", barne informaziorako aldizkariak Gasteizko eskaintza kulturalaren berri ematen du, gurasoek ikasleekin batera horietan parte har dezaten.

2001-2002 ikasturterako ikasleentzako irrati bat sortu nahi du Olabidek helburu bikoitzarekin: informazio bide bat zabaldu eta neska-mutilen euskararen erabilera sendotu.



Sare publikoko A-B-D/A-B/A/A-D ereduko ikastetxeak

• MIGUEL DE CERVANTES •

Sorrera urtea: 1972
Ikasle kopurua: 280
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: A-B-D
A ereduko hiru gela baino ez dira geratzen eta erdal irakaskuntza desagertzeaz dago Miguel de Cervantes ikastetxean. HNPN parte hartzen dute.

• PADRE ORBISO •

Sorrera urtea: 1981
Ikasle kopurua: 460
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: A-B
Denon Eskola elkarteak antolatzen dituen euskararen aldeko ekitaldietan parte hartzen du.
HNPN barruan ofizialki ez badago ere, proiektuaren ospakizunekin bat egin ohi du.

• RAMON BAJO •

Sorrera urtea: Duela mende bat baino gehiago sortu zen Ramon Bajo eskola, baina azken aldaketa 1980an egin zen.
Ikasle kopurua: 75
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: A
Alde zaharreko eskolak duen ikasleen portzentaje handia kanpotarra da, eta ez dute gaztelera menperatzen. Erdara ondo ikasi beharrak euskara bigarren maila batera darama Ramon Bajo ikastetxean.

• SAMANIEGO •

Sorrera urtea: Espainiako Errepublika garaian sortu zen eskola. 1936an ospitale bihurtu zuten eta ondoren eskola berriro ere.
Ikasle kopurua: 540, Batxilergoko ikasleak zenbatu gabe.
Ikasleen adina: 3-18
Hizkuntz ereduak: A-B

• SAN IGNACIO •

Sorrera urtea: 1962
Ikasle kopurua: 280
Ikasleen adina: 3-12
Hizkuntz ereduak: A-B
HNPNren partaide.
Eskola orduetatik kanpoko hainbat ikastaro euskaraz ematen dituzte.

• VALLE INCLAN •

Sorrera urtea: 1979
Ikasle kopurua: 16
Ikasleen adina: 11
Hizkuntz ereduak: A

• MENDIZABALA LANBIDE HEZIKETAKO ESKOLA •

Sorrera urtea: 1978
Ikasle kopurua: 698
Ikasleen adina: 16 urtetik aurrera. Batxilergoa eta Lanbide Heziketako Ziklo ertaina eta goi mailakoa.
Hizkuntz ereduak: A-D
Batxilergoa euskaraz egiteko aukera dago Mendizabalan, baina Lanbide Heziketako ikasketak erdara hutsez ematen dira.

• CIUDAD JARDÍN •

Sorrera urtea: 1951
Ikasle kopurua: 400
Ikasleen adina: 16 urte baino gehiago. Administrazioa, Merkataritza eta Informatikaren familietako Lanbide Heziketa.
Hizkuntz ereduak: A-B

• HOSTALARITZA •

Sorrera urtea: 1988
Ikasle kopurua: 104
Ikasleen adina: 16tik aurrera. Lanbide Heziketa.
Hizkuntza ereduak: A

A ereduaren gainbehera

Udal Haur Eskoletako azken lau ikasturteetako matrikulazio datuek argi erakusten dute Gasteizko gurasoak elebitasunaren aldeko apustua egiten ari direla. Urtez urte D ereduaren ikasle kopuruak gora egiten du, A-koak behera egiten duen bitartean. B eredua, berriz, gutxi gora-behera mantendu egin da azken laupabost urteetan.

	A	B	D
98-99	161 (%10,7)	885 (%59)	454 (%30,2)
99-00	128 (%8,4)	872 (%57,4)	517 (%34)
00-01	139 (%8,44)	898 (%54,5)	607 (%36,8)
01-02	117 (%6,5)	943 (%55,9)	641 (%37,5)

Ama-aiten hautaketak A ereduaren gelak desagertarazi ditu hainbat eskolatan, batez ere beheko kurtsoetan. A eredua duten eskoletako zuzendariak beheko mailatan gelak betetzeko adina haurrik ez dagoela aitortu dute. Egun ereduak aldatzeko beharra aldarrikatzen dute euskal hezkuntz sistemako hainbat aholtek, A ereduak ez duelako elebitasuna bermatzen, baina oraingo dinamika mantenduz gero euskara irakasgai gisa baino ez duen eredua epe ertainean desagertu liteke.

• ARKAUTKO NEKAZARITZA ESKOLA •

Sorrera urtea: 1850
 Ikasle kopurua: 60
 Ikasleen adina: Nekazaritzaren familiako
 Lanbide Heziketa.
 Hizkuntz ereduak: A

• FEDERICO BARAIBAR INSTITUTUA •

Sorrera urtea: 1969
 Ikasle kopurua: 500
 Ikasleen adina: 12-16. DBH, Batxilergoa
 eta Lanbide Heziketako goi mailako ziklo bat.
 Hizkuntz ereduak: A
 Euskarazko ekitaldiak eskaintzen die
 Institutuak ikasleei.

• FRANCISCO DE VITORIA INSTITUTUA •

Sorrera urtea: 1972
 Ikasle kopurua: 800
 Ikasleen adina: 12 baino gehiago.
 DBH, Batxilergoa eta Osasun eta Turismo
 familietako Lanbide Heziketa.
 Hizkuntz ereduak: A

• LOS HERRÁN INSTITUTUA •

Sorrera urtea: 1978
 Ikasle kopurua: 650
 Ikasleen adina: 12-16
 Hizkuntz ereduak: A-B
 Hizkuntz Normalizaziorako Departamentuak
 euskararen erabilera bultzatzeko ekitaldiak
 antolatzen ditu.

Sare Pribatuko Ikastetxeak: Adibide batzuk baino ez

Sare pribatuko honako adibide hauek ekarri ditugu gurer, zenbait ikasketa euskaraz eskaintzeko ahaleginetan dabiltzala, edota euskara bultzatzeko ekintzak antolatu ohi dituztela jakin dugulako. **Dena dela, sare pribatuko beste ikastetxeren batek euskararen aldeko egitasmorik izatekotan gure bulegora deitzea eskertuko genuke, emandako informazioa argitaratua izan dadin.**

• DIOCESANAS •

Sorrera urtea: 1942
 Ikasle Kopurua: 2.600
 Ikasleen adina: 12 urtetik aurrera. DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako hainbat ziklo.
 Hizkuntz ereduak: A-B-D
 Azken urteetan Lanbide Heziketako ikasketak euskaratzeko ahaleginetan dabilta Diocesanaseko zuzendaritza eta irakasleak. Iaz bezala, aurren ere D ereduako zikloak eskaini ditu berriro ikastetxeak (Mekanizatua euskara hutsez eta Administrazioa eta Finantzak, hirueleduna), baina 2000.ean gertatu lege ere, ezin izan dira martxan jarri ikasle nahiko ez egoteagatik. 2002an bai!

Erabilera bultzatzeko Hizkuntz Normalkuntzarako Proiektua

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak duela sei urte martxan jarritako proiektua da Hizkuntz Normalkuntzarako Proiektua. Plangintzaren helburua eskolan umeei euskara erabiltzeko aukera gehiago izan dezatela da, Mikel Zaldibe, Euskara Zerbitzuaren buruak azaldu duenez: “Eskola giroan gauza atseginak, neska-mutilen arteko harremanak, irteerak eta abar euskaraz egin dezaten”. Bestela euskara ezagutzaren mundura mugatzeko arriskua dago, “eta Ruffiniren teorema ikasteko bakarrik erabiltzea”. Ikastola eta ikastetxe publiko zein pribatuak parte har dezakete erabat boluntarioa den proiektuan. Eskola bakoitzak bere proiektuak prestatzen ditu, “ez dago bi eskola berdin eta, horregatik, bakoitzak bere neurriko jantzia egitea da egokiena”. Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sailak onartutako ekimenak kudeatzen ditu eta zentruetara aholkularitza eskaintzen die proiektuak era egokienean diseinatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan 300 eskolak izena eman dute HNP proiektuan, eta horietako 30 arabarrak dira. Izena ematen ez duten eskolek ere proiektuak aurkez ditzakete zenbait ekimen garatzeko eta hainbat aktibitateetan parte hartu.

• MIGUEL DE UNAMUNO INSTITUTUA •

Sorrera urtea: 1976
 Ikasle Kopurua: 869
 Ikasleen adina: 12-16
 Hizkuntz ereduak: A-B
 Eredu elebiduna eskaintzen bada ere,
 A ereduak da Miguel de Unamunoren ikasleen
 aukera nagusia.

• JESUS OBRERO •

Sorrera urtea: 1945
 Ikasle Kopurua: 2.200
 Ikasleen adina: 12 urtetik aurrera. DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako hainbat ziklo.
 Hizkuntz ereduak: A- B-D
 Orain arte Lanbide Heziketako eskolak gaztelera hutsez eman dira, baina etorkizun laburrean D ereduak gelak zabaltzeko helburua du zuzendaritzak. Izan ere, aurren Mekanizatu ikastaro batean euskararen presentzia indartu egin da.

• SAN PRUDENCIO •

Sorrera urtea: 1954
 Ikasle Kopurua: 800
 Ikasleen adina: 3-18
 Hizkuntz ereduak: A-B
 Haurrik gazteenen gurasoek A ereduak baztertu eta B-ra jotzen dutela aitortzen dute San Prudencio ikastetxean. Eskaria kontuan izanda, euskara bultzatzeko udalekuak eta jolasak antolatzen ditu zuzendaritzak.

ARABA: ERRIOXAN MURGILDUZ... ...ERRIOXAN ERE, ETORKIZUNA EUSKARAZ!

Arabako inguru erdaldunena euskalduntzea erronka handia da eta herrialdeko berreuskalduntzearen adierazgarri. Labarkan ospatutako 1992ko Araba Euskaraz-en leloak, "Non eta muga", Errioxako berezitasun eta ezaugarriak laburbiltzen ditu.

Egun Errioxako ikaslegoaren erdiak eredu euskaldunetan ikasten du, "eta horrek D ereduaren esan nahi du, B apenas baitago", azaldu du Aitor Urkizak, Assa Ikastolako zuzendariak. Ikastolek hartzen duten ikasle kopurua da Errioxako ikastolen egoeraren datu baikorra, eta ikastetxeek hartzen duten esparru geografiko zabala oztupo nagusia. Izan ere, Assa

Ikastolak, adibidez, Arabar Errioxako haurrak hartzeaz gain Logroño, Haro eta Bianakoak ere eskolaratzen ditu: "Hogei herritako umeak datoz gurera eta 360 kilometrotako autobus, errepi-de eta ibilbideen logistika antolatzea oso zaila da".

HEZKUNTZA ETA POLITIKA

Ikastolen curriculumaren polemikak eragin larria izan dezake printzipioz Errioxa bezalako gune "sentsibleetan", baina Urkizak ez du kezka berezirik somatu. Egun gurasoen kezka nagusia seme-alabei etxeko lanak egiten ezin laguntzea da, "baina lezioak

gure esku geratzen direla azaltzen diegu eta beraien lana beste bat dela, eta ulertzen dute".

Errioxako ikastolak pribatuak dira, baina tokian tokiko Udalekin ondo moldatzen dira, "herri batzuetan eskola bakarra gara eta". Baina gora-behera politikoek ikastola eta Udalen arteko harremanak baldintzatzen dituztela aitortzen du Aitor Urkizak. "Azken hauteskundeak eta gero ez dugu aldaketa handirik izan, baina gauza zehatzak somatu dira, adibidez lehen elebidunak ziren jaietako kartelak gaztelara hutsez agertu dira aurten herriren batean", azaldu du Assako zuzendariak.

ERRIOXAKO IKASTOLAK

• ASSA IKASTOLA •

Sorrera urtea:

- Mainuetako zentroa, 1985ean
- Samaniegokoa, 1998an
- Eskuernagakoa, 1985ean
- Labarkakoa, 1979an

Ikasle kopurua: 285

Ikasleen adina: 3-18

- Mainueta, Samaniego eta Eskuernagako eskolek haur hezkuntzako gelak baino ez dituzte.
- Labarkako ikastolak lehen hezkuntza emateaz gain, DBH eta Batxilergoa ere badu.

Hizkuntz ereduak: D

Ikasleen artean euskararen erabilera zabaltzeko ideia berezi eta interesgarri bat garatzen du Assak: Euskara talde bat osotzen dute maila ezberdinetako neska-mutilek irakasle baten laguntzaz. Horiek euskara kanpainak bultzatu eta antolatzen dituzte, baina gainera paktu bat egiten dute: beraien artean euskara hutsez arituko direla hitz ematen dute, gelan, jolas tokian zein kalean. Parte hartzea erabat boluntarioa da eta "oso dinamika politik sortzen dira". Euskaraz Bizi kanpainako ekitaldiak burutzen dira adin bakoitzari egokituak.

Ikastolinpiadak: Euskara eta kirola uztartuz.

Errioxako Euskara Elkartarekin batera lan egiten du Assak.

KOPURUAK ARABAN

SARE PUBLIKOA: 85 ZENTRO
SARE PRIBATUA: 35 ZENTRO

GEU ALDIZKARIAN AURREMATRIKULAZIOAREN GARAIA ARGITARATU BEZALA: "A ERE-DUA, GERO ETA BEHERAGO, ETA NABARMENA DA D EREDUAREN ALDEKO APUSTUA ORO HAR. B-a MANTENTZEN DA.

• BASTIDA IKASTOLA. BASTIDA •

Sorrera urtea: 1979

Ikasle kopurua: 111

Ikasleen adina: 2-12

Hizkuntz ereduak: D

Euskaraz Bizi programaren barruan lantzen du euskara.

Urtean zehar hainbat jai eta ekitaldi antolatzen dira ikastolan eta herrian euskara bultzatzeko.

• SAN BIZENTE IKASTOLA. OION •

Sorrera urtea: 1978

Ikasle kopurua: 223

Ikasleen adina: 2-16

Hizkuntz ereduak: D

Euskaraz Bizi programa.

Bertsolaritza eta irratigintza tailerrak dituzte.

Egutegiko jai guztiak aprobetxatzen dituzte euskararen erabilera bultzatzeko festak antolatzeko: Ihauteriak, Gabonak,...

ARABAKO IKASTOLAK

- Aresketa Ikastola. Amurrio
- Audio Ikastola. Audio
- Assa Ikastola. Mainueta, Eskuernaga, Samaniego eta Labarka
- Bastida Ikastola. Bastida
- San Bizente Ikastola. Oion
- Lope de Larrea Ikastola. Agurain
- Etxaurren Ikastola. Araia
- Ibernalo Ikastola. Kanpezu
- Garazi Ikastola. Legutio

Beste batzuk

- Aniturri Institutua. Agurain Lanbide heziketa euskaraz
- Audioko "Aiala Kantzelaria-Gregorio Marañón" B.H.I. (A-D)

* Agian Ikastolaren bat falta da. Hala balitz, mesedez deiguzue txostentxo hau osatzeko

KOZKORTUZ

liburuak liburuak liburuak liburuak liburuak liburuak liburuak liburuak liburuak liburuak

'GANGSTERREN IHESI'

MIKEL VALVERDE

SM-KOMIKIAK SAILA. 2001

IRAKURTZEN IKASI JOLASEAN, KOLORETAKO ILUSTRAZIOAK, LETRA ARGIA



Lehen irakurleei zuzendua, testu erraza eta umorez betea: Jon Arkakuso txirrindulariak Armiarma anaia gangsterrekin topatzean bizi izango dituen abenturak... Mariano Lejarretari dedikatua.



MUSUKA

PATXI ZUBIZARRETA

JOKIN MITXELENA

SM-PIRATAK

IRAKURTZEN HASTEKO



Musu batzuk sudurra- rekin ematen dira, eskimalenak bezala. Musu batzuk ahoare- kin ematen dira, libu- ru honetakoak bezala: maitakorrak, lapur- tuak, magikoak... Nahi adina musu daude.



Olabideko Lilura taldea

Haur Kantari Txapelketan garaile

Aurtengo Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketak zazpi herrialdeetako 2.250 ume jarri zituen kantari, horietatik 150 Araban.

Antolatzaileak: Euskal Kantuzaleen Elkarteak- Bagare Euskal Tokia (Arabak).

Ikas-Bidea Ikastola, Jesus Langile eta Aguraingo Pedro Lopez de Larrea Ikastolako haurrek ere beren kantuak egin zituzten



Lilura taldeko neskak

Ainhua Ferron

Maider Ansa bakarlari aranoarraren garaipen ukaezinaz gainera, iragan ekainean egin zen Euskal Herriko Haur Kantarien Txapelketako sarietako bat ere Arabaraino etorri zitzai-gun. Kategoria desberdinetan parte hartu zuten talde, bakarlari, eta bikoiteen artean Olabide ikastolako Lilura taldeko nesken Lo Kantak talderik onenaren saria eraman zuen.

Aurretik ere gogor zapaltzen zetozen hauek, Olabide Ikastolako ikasleak izan baitziren, zalantzarik gabe, maiatzaren 19an Argantzunen izan zen Arabako final aurrekoan arrakastatsuen gertatu ziren partaideak; finalera pasa ziren hirurak Olabideko ordezkariak izan ziren eta.

Txapelketaren antolatzaile den (Bagare Euskal Tokiarekin batera Arabari dagokiolarik) Euskal Kantuzaleen Elkarteak "oso arrakastatsutzat" jo du aurtengo deialdia, honek erantzun zabala izan baitzuen Araban: Finalera hiru besterik iragan ez baziren ere, Argantzunen kantariak hogeita bi izan baitziren bakarlari, bikote eta taldeen artean.

Bestaldetik, eta "urterik urte lortzen den maila politaz gainera", Kantuzaleen Elkartetik zenbait talderen sormena ere azpimarratu dute. Kasu honetan, Jesus Langileko Akelarre eta Behi Eroak izan ziren "Akelarre" eta "Hodei Grisak" izen-

Gainontzean horrelaxe gelditu zen finala:

Gaztetxoak:

- Bakarlaria: Maider Ansa. Donostiyako. Aranoa (N)
- Bikotea: Iztueta eta Leunda. Gogoaren baitan. Anoeta (G)
- Taldea: Lilura taldea. Lo Kanta. Gasteiz (A)

Txikiak:

- Bakarlaria: Aiora Hulin. Ürx' apal bat. Sohüta (X)
- Bikotea: Lamarque eta Etxart. Hodeier Kilika. Baxenafarroa.
- Taldea: Ttipittariak taldea. Plisti Plaust! Bera (N)

Sari bereziak:

- Interpretazioa: Marlene Silva. Uharte-Garazi. (BN)
- Ahotsaren teknika: Elodie Lavielle. Larresoro (L)
- Kantatzeko nortasuna: Leire Agirre. Zornotza (B)
- Abestiaren berezitasuna: Garazi Saratxo. Arrigorriaga (B)

buruko kanta propioak aurkeztu zituzten taldeak, Kantuzaleentzat eskertzekoa den lana: "Arabar kantugintzarako biziki garrantzizkoa da kanta berriak sortzea eta hain jende gaztea egiten ari den lan garrantzitsu hori txalotzekoa da".

Aipatuez gain, Aguraingo Pedro Lope de Larrea Ikastola eta Ikas Bidea Ikastolako haurrek ere beren kantuak egin zituzten.

Inoizko mailarik onena

Behin partaide guztiek beren lana egin ondoren, epaimahaiak finalean Olabideko hiru ordezkariak parte har zezaten erabaki zuen: Ane Ortiz de Gordo txikien txapelketan bakarlarik moduan eta Eguzki eta Lilura taldeak gazteen mailan.

Finala ekainaren 19an izan zen Hernaniko pilotalekuan eta bertan 120 kantarik hartu zuten parte. Euskal Herriko lurralde guztietako haur eta gaztetxoak bildu ziren epaileen esanetan "orain arteko mailarik onena" eman zuen saioan.

Aurreko final askotan Iparraldeko kantariak sarien gehiengo eskuratu bazuten ere, 2001eko finalekoak Euskal Herri osoan zehar barreiatu ziren eta horien artean epaimahaiak Lilura gastetzarrei eman zien euren saileko lehendabizikoa.



**Estitxu Txurruka,
Olabide Ikastolako
abesbatzaren zuzendaria.**

"Haurrek euskararekiko oso jarrera positiboa dute, eta horretan kantuak zerikusirik badu"



Edorta Sanz

- NOLA LANTZEN DIRA KANTUA ETA MUSIKA OLABIDE IKASTOLAREN BARRUAN?

- Olabide Ikastolako Kultur Elkartek abesbatza, lengoia musika, txistua, dantza, antzerkia eta beste zenbait eskolaz kanpoko ekintza antolatzen ditu. Horretaz gainera, beste ikastetxeetan bezala, musika irakasgai bezala lantzen da eskola orduetan, lengoia musika ikasten da, kantatu egiten da. Horrek gehiago ikasteko grina sortzen du ikasleengan eta asko Elkartek eskaintzen dituen ekintza horietako batean sartzen dira.

- ZER-NOLAKO LEKUA DU EUSKAL KANTUAK ZUEN ABESBATZAN?

- Guk kantu korala egiten dugu. Baina, nahiz eta korala izan, euskal abestiak dira batez ere. Betiko kantak lantzen ditugu, egokitu-ta eta harmonizatuta. Kantu atzerritarrak ere ikasteak aberastu egiten du, baina normalean euskal kantuekin tartekatzen ditugu eta azken hauek dira gure erreperatorioan nagusitzen direnak. Gainera, ikastola bateko abesbatza izanik kontrakoa gertatzea arraroa litzateke, ezta?

- KANTUA HAURRAK EUSKAL KULTURAN MURGILARAZTEKO TRESNA ONA AL DA?

- Bai, dudarik gabe. Ingelesezt edota beste hizkuntza batez abestiak ikasten ditugunean beti entzun ohi dut: Eta euskaraz noiz? Normala da, beraiei askoz errazago egiten zaie euskaraz kantatzea. Hau da, euskararekiko oso jarrera positiboa dute, eta horretan kantuak zerikusirik baduela iruditzen zait.

Gainera, Euskal Herri mailako txapelketa hauek asko laguntzen dute sentimendu positibo hori garatzen.

- ZER MODUZKO PANORAMA DUGU ARABAN KANTUAREN INGURUAN?

- Abesbatzen koordinaketaren aldetik oso ondo gabiltza. Araban haur eta helduen abesbatzen federazioak ditugu eta lan polita egiten dute. Urtero-urtero abesbatzak bildu egiten gara eta horrek koruen arteko harremanak estutzen ditu, beti aberasgarria izaten dena. Bakoitzak besteak zer egiten duen ikus dezake eta horrek ere gero eta gauza politagoak egin daitezzen laguntzen du.

"Euskal Herri mailako txapelketa hauek asko laguntzen dute sentimendu positibo hori garatzen"



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

**Euskara
bultzatu
nahi?...**

945 22 21 53

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883



"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

MERKURIO-KADIMOAN
%0a



CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK




CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43



**LIZARRALDE
SOINYA**
TXALAPARTA, S.L.

945 226 977

GASTEIZ

SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
ESPASIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA





APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



arabarrok euskarari BAI



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

1838. urtean Mont Blanc mendiaren gailurra zapaldu zuen lehenengoz emakumeak, gizonezkoak egin eta 52 urte beranduago hain zuzen ere. Garaiko gizartean, baita hurrengo urteetan ere, emakumeak kirol hau praktikara eramatea ez zen egokitzen jozten, baina hala eta guztiz ere, iritzi publikoak ekar zezakeen trataera gogorra eta baztertzalearen aurrean hainbat emakumek ausart jokatu eta edozein aurreiritziri aurre eginez historia egin zuten.

Denboran atzera eginez garai horietara garraiatzen gaitu Arantza Lopez Maruganek idatzitako Cuerdas Rebeldes liburuak.

ARANTZA LOPEZ MARUGAN,
"CUERDAS REBELDES" liburuaren egilea:

“Liburu honetan ezkutuan dauden istorioak kontatu nahi izan ditut, emakumeek mendian egindako historia”



Arantza

Josune Velez de Mendizabal

-AURTENGO MENDI, BIDAIA ETA ABENTURA LITERATURAKO III. DESNIVEL SARIAREN IRABAZLEA IZAN ZARA EMAKUMEEK MENDIAN BIZI IZANDAKO ESPERIENZIARIK KONTATZEN DITUZUN KONTU MOTZETAKO LIBURU HONI ESKER. BAINA, ANTZA, KONTAKIZUNA IZATETIK BAINO HARAGO DOA ZUK EZAGUTARAZI NAHI IZAN DUZUN EMAKUMEA ETA MENDIAREN ARTEKO HISTORIA, EZ?

-Niretzat mendi horiek eskalatzeak izan ditzakeen arazo teknikoak ez da inportanteena, baizik eta zein baldintza sozial eta moraletan gauzatu diren iguera horiek; hau da, igotza tontorra

egin eta jaitsi ez da nik kontatu nahi dudana, bai horien atzean dauden gertaerak, ordea, ezkutuan dagoen historia, alegia.

-LIBURUAN 170 URTEKO FLASH-BACK-A EGIN ETA MUNDUKO EMAKUME MENDIZALE ETA ESKALATZAILEAREN GARAPENA BEDERATZI EMAKUMEREN ISTORIOEN BIDEZ BILTZEN DUZU. ZERGATIK EZ DUZU ZURE ESPERIENZIARIK KONTATU BERTAN? ZERK BULTZATU ZAITU LAN HAU EGITERA?

-Nire istorio pertsonalak ez dira oso hunkigarriak, ez dira interesekoak, ez naiz horretara profesionalki dedikatzen... Nire ustetan garrantzizkoena ezkutuan dauden istorioak berreskura-

tzea da; honek gauzak egin daitezkeela pentsatzen lagundu diezaieke emakumeei, zeren eta norbaitek zu baino lehenago hortik pasa dela jakitean gerta daiteke halakoak egitera gehiago ausar-tzea, eta hori da nik lortu nahi izan dudana, jendea animatu eta bultzatu.

-LIBURUA IRAKURRIZ BEREN KABUZ MENDIARI EKITEKO EMAKUMEEN EGOERA EZ ZELA ERRAZA ANTZEMATEN DA, ETA HOR NONBAIT GIZONEZKOEK EMAKUMEARI MOMENTUKO GARAIPENA ETA GARRANTZIA KENDU NAHI IZAN BAZIOTEN, NOLA SUERTATU DA DOKUMENTAZIOA ETA DATU-BATZE LANA?

-Batez ere lehenengo emakume horiei buruzko informazioa zailagoa da topatzea idatzi dudana azkenengo emakumeei buruzkoa

"Azken finean, liburu hau mendia egiten ez duen irakurlearentzat idatzi nahi izan dut"

baino. Izan ere, azkenengo hauek gure garaietatik gertuago dauden heinean errazago aurkitzen da informazioa, jada ospetsuak baitira. Bestetik, egia da emakumeen lorpenak ezkutatzeko saiatu direla, gogoratu besterik ez dugu behar emakumeak gune publikoetan ez zuela parte hartzerik, ez zuen idazten, ez zuen hitzaldirik ematen, ez ziren ospetsuak eta batik bat etxean zeuden. Hortaz, datuei dagokienaz, hauek amerikar eta ingeles liburuetan aurkitu ditut, baita mendi klub ezberdinetan zeuden txostenetan ere.

Informazio hau lortzeko denbora nahikoa behar izan dudana arren ikerkuntzan ohitua naizenez ez zait batere astuna egin.

-1902. URTEAN GERTRUDE BELL-EK, 34 URTEKO INGALATERRAKO EMAKUMEA, 4.273 METROKO FINSTERAARHORM MENDIA IGOTZEN SAIAITU ETA LORTU ERE EGIN ZUEN ORDURA ARTE



FITXA TEKNIKOA:

- **Jaioteguna:** 1967.eko urriaren 13an.
- **Jaioterria:** Gasteiz.
- **Ikasketak:** Industria-Soziologia.
- **Lanbidea:** Irakaslea.
- **Zaletasunak:** Idazmena, irakurmena eta mendia.
- Arantza txikitatik hasi zen mendiarekin luzaroko izango duen harremana estutzen eta jada 20 urterekin mendi klubetan aritzen da. Geroago lagunekin arituko da eta denbora librean aprobetxatuko du bere zaletasuna garatzeko.

ZEUDEN BIDEAK BAZTERTUZ ETA BERRIA EGINEZ...; ERRONKA HANDIA GARAICO KLASIZISMOARI AURKEZTU ZIONA... ZERK BULTZATZEN DU EMAKUME HAU HORI EGITERA?

-Gertrude nire ustez aitzindaria izan zen bere garaian gauza askotan: Oxforden ikasi zuen lehen emakumea, aberatsa izanik ezkondu nahi izan ez zuen emakumea, inor ez zenean desertura joaten bera Desertuko erregina izenaz ezaguna izan zen... Beraz, bide eginak ez zituen gustuko, berak bere ekimenez egindakoak nahiago zituen eta horrela aritu zen bere bizitzako esparru guztietan. Bihurria izan zen eta berak bakarrik gauzak egin zitzakeela erakutsi nahi izan zuen.

kumea, inor ez zenean desertura joaten bera Desertuko erregina izenaz ezaguna izan zen... Beraz, bide eginak ez zituen gustuko, berak bere ekimenez egindakoak nahiago zituen eta horrela aritu zen bere bizitzako esparru guztietan. Bihurria izan zen eta berak bakarrik gauzak egin zitzakeela erakutsi nahi izan zuen.

-ZUK AZALTZEN DUZUN BEZALA, JADANIK XIX. MENDEAN EMAKUMEAK MENDIA EGITEN SAIAITZEN BADIRA ERE, EZ DA ERABAKI ERRAZA GIZARTE OSOAZ GAIN MUNDUA BAITUTE AURKA; ORDU-RA ARTE GOI MAILAKO EMAKUMEEK IBILTZEA, ESKIA ETA BIDAIATZEA ZITUZTEN KIROL EGOKIAK. ALPINISMOA ETA ESKALADA, BERRIZ, GAIXOTASUN MENTALAREN PAREKO ZIREN EMAKUMEEK EGITEKOTAN, BAITA LESBIANISMO AURREKINAK ERE. GAUR EGUN MENDIAK IGOTZEAK, NEKEARI, HOTZARI, EGOERA LATZEI EUTSI BEHARRAK, HERIOTZAREKIN AURREZ AURRE EGITEAK... ZORAMENA DUTELA OINARRI PENTSATZEN DUENIK ERE BADAGO, EZTA?

-Gizonezkoena kontsideratzen zen neurrian mendia praktikatzen zuen emakumea lesbianatzat jotzen zuten. Baina gaixotasunaren aipamenari erreparatuz, mendia eta eskalada egitean zerbaitek bultzatzen zaitu zure ahalmenetik baino haragoko gauzak egitera eta hori baloratu behar da. Beraz, ez dut uste gaixotasun bat denik, baizik eta giza grina.

-1908. URTEAN ANNE PECK IPARAMERRIKARRAK BERE HERRIKIDEA DEN FANNY BULLOCK-EK EZARRITAKO ALTUERA MARKA GAINDITZEA DU HELBURU; HORTAZ, PECK ANDEREÑOAK 58 URTE DITUELA 1908. URTEAN HUASCARAN MENDIA IGOTZEN DU ABIABURU ETA HELMUGA BAKAR HORREKIN, MARKA GAINDITZEA. HORRELAKO LEHIAKORTASUNA AGERI DAITEKE MENDIAN?

-Bai, dinamika horretan sartu da gaur egungo mendi kirola, markak hausteko gauza ezberdinak egiten dira eta horiek lehiakortasuna areagotzen dute. Honetaz gain, komunikabideetan agertzeko interes berezia dago, horren atzean dirua baitago, eta azken honek jendearen arteko lehia pizten du.

-AZKENIK, BERE ABERKIDEAREN MARKA HAUTSI EZ BAZUEN ERE, ANNE PECK-EK HUASCARAN-EKO GAILURRE-RA HELDU (6.000 METROKOA) ETA HONAKO HAU ZIOEN PANKARTA BAT IPINI ZUEN TONTORREAN: "BOZKATZEKO ESKUBIDEA EMAKUMEAREN-TZAT". GAUR EGUN ZER JARRIKO

"Egia da emakumeen lorpenak ezkutatzen saiatu direla"

ZENUKE? ZER ALDARRIKATU BEHARKO ZUEN EMAKUMEAK?

-Garai bakoitzak bere arazoak eta gauzak ditu, eta egungo gizartean Peck-ek jarri pankartaz barre egin badezakegu ere bere garaian giza aldarrikapen handia zen hori... Egun, bat jarri beharrean igual kilo bat jarri beharko genuke, dena den ez dut sekula pentsatu horretan...

-EIGER MENDIA IPARREKO PARETATIK IGO NAHIAN DABIL LOULOU BOULAZ 1936. URTEAN, BAINA BERE EKIMENA AURRERA ERAMAN BAINO LEHENAGO HAINBAT HERIOTZ GERTATZEN DIRA ALPEETAKO MENDI HONETAN. BERAK SENTIMENDU KONTRAJARRIAK DITU MOMENTU HORRETAN, BERE AMETSARI EKITEKO TENTAZIOA BURURA DATORKIO BAINA HERIOTZAREKIN AURREZ AURRE TOPATZEAREKIN PENTSATZEAN OILO-IPURDIA JARTZEN ZAIO. INOIZ EGOERA HORRETAN AURKITU DUZU ZURE BURUA?

-Bai askotan, ez asteburuko


baina bai askotan kanpora irtezen zarenean; orduan zeure buruari galdetzen diozu ea zer gerta daitekeen. Pentsatzen dut nahiz eta denok beldur izan, emakumeok gizonezkoek baino gehiago hitz egiten dugula sentimendu horiei buruz; dena den, nik aitortzen dut izugarri beldurtia naizela. Bestetik, errealista naizen heinean eta zuhurtziaz jokatzaz esan dezaket mendiak igo baino jaitsiera gehiago egin ditudala; hala eta guztiz ere, gustukoa izateak ez du esan nahi zoroa zarenik.

-DOKUMENTAZIO LAN HANDIA IZAN ARREN, SENTIMENDUAK ZUREAK BAILIRAN AZALTZEN DITUZU PROTAGONISTEN AHOTAN. HORIEK ERE IKERKETA LANEAN LORTU DITUZU EDO ESPERIENTZIA PERTSONALAK EMANDAKO EMAITZA DIRA?

-Ekarpen propioa egin dut, baina emakume horiek jasan zutena ulertzen nik mendiarekin daukadan harremanak lagundu dit. Pertsonajek pentsatzen dituzten hainbat gauza garaiko emakumeen bizimoduari esker jakin ahal izan ditut, beraz oinarritutako susmoak dira. Azken finean, liburu hau mendia egiten ez duen irakurlearentzat idatzi nahi izan dut.

ZOZKETA

Liburuan Arantzaren beraren istoriorik kontatzen al da?



Bidali erantzuna postaz edo e-mailez eta liburua eskuratzeko aukera izango duzu.



Bacalao Giraldo

- Eguneke makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36

Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ



LA RIOJANA

jatetxea

on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazulatxoak

Aitzogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Ka La MUA

TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria, 5
Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

GEU

**aldizkaria
etxean
jaso nahi?...**

...

945 22 21 53

Garagardotegia

Ostiraletik
Igandera
IREKITA
(astelehenetik
ostegunera
itxita)

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

XIXILU

JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

bar • restaurante

albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

EUSKAL LABELA

LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

KULKI

Tlf.: 945.139.699



BIHARAMUNNEKO PILULA

EMAIZE
Sexologia Elkartea

Azken hilabeteetan asko hitz egin da biharamuneko pilulaz.

Komunikabideetan nahi-gabeko haurdunaldia sai-hesteko azken iraultza balitz bezala aurkeztu dute. Hala ere, koitoaren ondoko tratamendu antikontzeptibo hau hirurogeita hamarreko hamar-kadatik erabiltzen da. Berrikuntza botiketan formatu berri batekin eta askoz garestiago (3.000 pta.) aurkeztu dela da.

ZER DA?

Sexu-harremanean koitua gertatzen denean (beraz, harreman heterosexuala) eta inolako babesik hartzen ez denean (hau da, antisorgailuren bat erabili ez bada) edo ohiko antisorgailuak huts egiten duenean (kondoia apurtzen denean adibidez) hartzen den prestakin hormonal da. Beraz, haurdunaldia eragozteko urgentziako metodo bat da eta ez du sexu bidez transmiti daitezkeen gaixotasunetatik babesten. Osagai hormonal nagusia, Levonorgestrel deritzona, ahoz hartzen diren antisorgailuen ("pilula") osagai nagusia ere bada, baina dosi handiagotan.

NOLA ERABILTZEN DA?

Bi dositan hartzen da, lehenengoa lehenbailehen hartu behar da, koitua gertatu den sexu-harremana izan eta 72 ordu igaro baino lehen, hala, eraginkortasuna handiagoa izan dadin, eta bigarrena lehenengoa hartu eta 12 ordura.

NOLA LAN EGITEN DU?

Koitoaren ondorengo metodo antikontzeptibo honek obulazioa saihesten du (ernal-



dua izan daitekeen obuluaren presentzia galarazten du), ernaldutako obulua umetokian kokatzea eragozten du, umetokiaren paretetan aldaketak sortzen ditu eta baita maginako jarioan ere (espermatozoideak umetokirantz joatea eragozten du).

Beraz, gizartean sortu den eztabaida handia izan arren eta osasunaren esparruko langile batzuek hartutako jarrera alde batera utzita, oro har, adostasuna erabatekoa da arlo honetan: obulua umetokian ezarri aurretik haurdunaldia saihestea edo obuluaren ezarpena eragozteko metodo antikontzeptiboa da, eta ez abortua.

BIGARREN MAILAKO ONDORIOK BA AL DU?

Kontraindikazio gutxi dauden arren (emakume gehienek har dezakete), bigarren mailako ondorioren bat izan dezake eta, nagusienak, goragalea, okadak, odola galtzea edo buruko minak dira, baina gehienez ere 24 ordu irauten dute.

ETA NOIZ JAISTEN DA HILEKOA BERRIRO?

Neska gehienek hilabete horretarako aurreikusitako egunean edo lehenago izango dute hilekoa.

NOLA LOR DAITEKE?

Antisorgailu hau edozein botikatan eros daiteke medikuaren errezetarekin. Horixe da metodo antikontzeptibo hau erabiltzeko oztopo nagusia; gaur egungo araudiaren arabera, gazteak famili medikuarengana joan behar du, hau da, astelehenera arte itxaron behar du (sexu-harreman gehienak asteburuetan izaten dira eta, beraz, tratamenduak eraginkortasuna izan dezan errespetatu behar den epea igaro egin izan daiteke), pertsona ezagunekin elkartzeko beldurra izan dezake edo sendagilearengan konfiantza falta izan dezake, datu pertsonalak eskatuko baitizkio.

Askotan eta epearen kontua garrantzitsua dela kontuan izanda, bikoteak ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetara edo arreta-unitate iraunkorretara joaten dira eta, maiz, sendagileek, gazteari galdeketa deserosoa (eta batzuetan zakarra) egin ondoren, arrazoi moralak direla-eta ukatu egiten diote tratamendua.

Puntu honetan lehenago esan duguna gogoratu nahi dugu berriro: biharamuneko pilula ez da abortatzeko metodo bat, metodo antikontzeptibo bat baizik.

Amaitzeko, koitoaren ondorengo antisorkuntza berez metodo bat ez dela pentsatu behar dugu, gainerako metodoek huts egiten dutenean erabiltzeko baliabidea baizik. Larrialdietan baino ez dugu erabili behar, behin eta berriro erabiliz gero eraginkortasuna galtzen baitu; eta ez da inoiz metodo antikontzeptibo baten ordeztu erabili behar. Erabilerari buruzko zalantza guztiak galdetu egin behar dituzu, hartuko zaituen medikuari informazio egokia eskatu.

Izan dezakezun sexu-harremanean koitua gertatuko dela pentsatzen baduzu, metodo antikontzeptiboetako buruzko informazioa eskatzea komeni zaizu eta egokiena aukeratu behar duzu, haurdun geratzeko arriskurik gabe sexualitateaz gozatzeko aukera asko ditugula ahaztu gabe betiere.

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER MIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua
euskaraz
bizi



PITILIN GORRI

GASTEIZ

Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN

adaka
madinabeitia

Floridako altxorra !

35

EUSKO IKASKUNTZAREN XV. KONGRESUA

"Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak"
Donostian,
azaroaren 28tik 30era
INFORMAZIOA:
943 31 08 55

JUAN SAN MARTIN BEKA 2001

Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, euskarazko ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko, honen izena duen ikerketa-bekarako deia egiten du. Ikerketa esparruak: antropologia, linguistika, filologia, toponimia, filosofia, literatura, botanika, artea, historia, kazetaritza, etnologia, mendizaletasuna eta zuzenbidea.
EPEA: Urriaren 23ra arte.
INFORMAZIOA:
943 70 71 53
(Fernando Muniozgiuren).



XIX Concurso de Cuentos
Gabriel Aresti
XIX. Ipuin-Lehiaketa

GABRIEL ARESTI XIX. IPUIN LEHIAKETA

INFORMAZIOA:
BILBOKO UDALA.
KULTURA ETA TURISMO SAILA.
EPEA: Urriaren 31a.

JOKIN ZAITEGI XV. ITZULPEN LABURREN SARIKETA (AED Elkartea)

INFORMAZIOA: 943 77 12 28. EPEA: Urriaren 31a.



JOKIN ZAITEGI
XV. Itzulpen
laburren
sariaketa
Arrasate 2001

I. UMORE GRAFIKOKO NAZIOAR- TEKO LEHIAKETA

INFORMAZIOA: BARAKALDOKO UDALA. EPEA:
Azaroaren 4a.
BIDAIA ETA MENDI KRONIKEN LEHIAKETA
INFORMAZIOA: EUSKALDUNON EGUNKARIA (943
30 02 22). Epea: Urriaren 12a.



KERAMIKA ERAKUSKETA: "Berbetan"

IÑAKI JAUREGIALTXO
Zalduondoko Lazarraga Jauregian
Azaroaren 18ra arte

XXVI NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIA

Urria-Azaroa
Bi obra baino ez euskaraz:
Azaroaren 11n (umeentzat): "ALIZIA BITXIKERIEN
LURRALDEAN" (Dar Dar produkzioak)
Azaroaren 17an: "ERRUDUN JAIKAK" (Tanttaka)



AZKEN ORDUA: ENEKO ETXEBARRIETA ORAINDIK BIDAIATZEN

Gogoan al duzue Eneko Etxebarrieta gasteiztarra? 1999ko otsailan bizikleta hartu eta teoriaraz Europan zeharreko urtebeteko bidaia izango zenari ekin zion... Eta oraindik ez da itzuli, Europa ibiltzeko hasierako helburua, gainera, atzean utziz...

Hona hemen, beraz, orain arte ibilitakoa:
Gasteiz, Marseilla, Korsika, Italiako penintsula, Sardinia, Sizilia, Slovenija, Istanbul, Iran, Pakistan, India, Indotxina (Thailandia; Bangkok), Txina, Tibet, Mongolia, Korea, Japonia, Kanbodia, Vietnam, Malasia... Indonesia... Australiarantz (uztailean jaso genituen bere azken berriak).

BERE BIDAIA JARRAITZEKO: www.enekoetxe.com



HITZETATIK EKINTZETARA!

Gaur eta hemen,

BAKEA, AKORDIOA eta ELKARRIZKETA!

AI ENE!
ORAIN ALDIZKARI
KULTURALA BAGARA
...GIDOILARI BERRI
BAT BEHAR
DUT !!



SAIL BERRIA, SAIL BERRIA, SAIL BERRIA, SAIL BERRIA

EUSKALGUNE, TOPAGUNE!

GEU ALDIZKARIAREN TXOKO BERRIA DUZU HAU:

**EUSKALDUNOK, EUSKALTZALEOK HAN ETA HEMEN
BATU GAITZAKEEN TXOKOA, GUNEA... ZURE
PROPOSAMENETARAKO TARTEA!**

**"Euskaldunen arteko harremanak bultzatzeko eta
euskaraz egiten diren ekitaldiak aurkezteko" ZURE
TXOKOA!**

**Guk hileroko agendan dakarzkizuegun euskarazko
ekitaldiez gain, ziur gaude askok eta askok ihes egiten
digutela...**

**...Horregatik, GASTEIZKO EUSKARAZKO ESKAINTZA
KULTURALARI DAGOKION GARRANTZIA EMAN
NAHIAN, IKASTURTE BERRIAREKIN SAIL HAU IREKI
NAHI IZAN DUGU, EUSKARAZ GOZATZEKO AUKERA
GERO ETA ZABALAGOA IZAN DADIN.**

**BERAZ, ZURE AUZOAN, ESKOLAN, LANTOKIAN,
ELKARTEAN, EUSKALTEGIAN... EUSKARAZ EDOTA
EUSKARAREN ALDE EGINGO DEN EKITALDI
HORRETARA GUZTIOK JOATEKO AUKERA IZAN
DEZAGUN, BIDALI HONA INFORMAZIOA.**

HAU DA ZURE GUNEA, GURE GUNEA, EUSKALGUNEA!

ORAIN HUTSIK DAGO... BETE DEZAGUN, BA!

LOS ROTUROS

HOTELA TABERNA JATETXEA



BEREZITASUNAK

- Arkume errea
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Enpresa bilerak



Tlf.: 945.410.250

Errementari (Herreria) kalea, 10.

MAEZTU

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

e-mail: losroturos@teleline.es
web orria: usuarios.tripod.es/losroturos